



V. UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA

IRUINEA 1.977

F I L O S O F I A  
=====

SAILBURUA; ANTTON ARTAMENDI

## MAO : KONTRADIKZIOAREN TEORIA

Jon Sudupe

Marxismoa, beste gauza guztiak bezalaxe, bitan zatitzen da: Zientzia bat (materialismo historikoa) eta Filosofia bat (materialismo dialektikoa). Filosofia marxistaren aldean, askoz landuago dago materialismo historikoa. Marxismoaren klasikoetatik aparte (Engels, Lenin, Stalin, Mao), eta Lukacs, Gramsci eta Althusser kenduta, gutxi aritu dira materialismo dialektikoaz mendebaldean.

Horregatik, materialismo dialektikoa ez da "sistema" bat. Hartzen baditugu, esate baterako, Lenin eta Maoren interbentzio filosofikoak (enpiriokritizisten eta dogmatikoen kontra), konjunturako burruka ideologikoaren exigentzia konkretuek eragindakoak direla ikusiko dugu: langile mugimenduan zeuden joera politikoaren espresio idealista eta metafisikoak burrukatzeko eginak. Zaila da, beraz, filosofia marxistari buruzko manual bat egitea (edo aurkitzea).

Ezaguna da Maoren formula hura: "marxismoak printzipio ugari ditu, baina azken batean, frase bakar batean bil daitezke: badugu arrazoirik erreazionarioen kontra erreboltatzeko". Zera adierazi nahi zukeen, alegia: teoria, filosofia, egia hitz batez, ez dela neutrala, ez dagoela denentzako balio duen egiaz, erreazionarioek (kapitalistek) beren egia dute, eta zapalduak berea. Arrazoa dugu erreazionarioen kontra jeikitzean, honetan bil daiteke zapalduen filosofia. Baina beste alderdi bat ere badu esaldi honek:

erreboltaren barruan ez dagoenak ez duela ezer ezagutzen, nahiz eta teoria bikainik egin. Konozimendua ere bitan zatitzen denez, (teoria/praktika), bata bestea gabe ez da ezer. Teoria hutsak (praktikarik gabeak) ez du ezer balio.

Filosofiak, beraz, partidua hartzen du: filosofia burgesek erre-akzionarioen alde, filosofia marxistak langileriaren alde. Errebolta edo burruka baldin badago, bi kontrario dagoelako da: zapalduak eta zapaltzaileak. Dialektika, (gero ikusiko dugunez, kontrarioen batasuna) erreboltarekin batera sortu zen, zapalduen filosofia bezala. Dialektika, hortaz, ezarritako ordena aldatu nahi dutenen filosofia dela esan dezakegu.

Maogana pasa baino lehen, ikus dezagun laburki zer dioten dialektikaz eta honen printzipioetaz, Engels, Lenin eta Stalinek.

Engels izan zen dialektika materialistaz hitzegiten aurrena, eta normala den bezala, ez zituen oso ondo formulatu haren legeak. Badiouren ustez, hauxe da Engelsen akatsik larriena: materialismuari eta identitateari ematen diela lehentasuna eta ez dialektikari eta kontrarioen arteko burrukari. Baina konprenitzekoa da Engelsen posizioa: filosofia oro, beste filosofietatik eta haien aurrez-aurre produzitzen da. Filosofia jaioberri batek existitzeko espazio bat behar du konkistatu. Gainontzeko filosofiak desplazatuz, haiengandik desmarkatu beharra dauka. Batailazelai filosofikoan ere ("klase burruka teorian", Althusser) irabaztea baita inportan-

teena. Zer egiten du Engelsek? materialismo/dialektika, bikote kontradiktorioaren barruan, materialismo alderdia azpimarkatu, idealismo gaztehegelianoaren aurrez aurre materialismoan jarri beharrean baitzegoen azentua. Honek ez du esan nahi, inola ere, dialektikaren etsai denik; ez eta hurrik eman ere.

Engelsek bere "Naturaren Dialektika" liburuan hiru lege enuntziatu zituen, hauetxak:

- 1) kantitatea kualitate bilakatzen da, eta alderantziz
- 2) kontrarioen interponetrazioa
- 3) negazioaren negazioa

Legeon formulazioa, ordea, ez da hain egokia: 1)an, eboluzionismoari irekitzen zaizkio ateak, 2)an, kontrarioen antagonismoa ez da behar bezala markatzen, 3)an, Hegelen formula honek, produkzio moduen interpretazio lineal batera eraman dezake. Engels, hortaz, gauregun superatua dagoela esan daiteke eta haruntzago joan behar dela.

Leninek, Hegelengandik abiatuz eta Hegelen aurrez aurre, 16 elementu aurkitzen dizkio dialektikari. 16 elementuok lau legeotara muga daitezke:

- 1) gauza guztien elkardependentzia
- 2) errealitate oro mugimendua da, prozesua
- 3) kontradikzioa da fenomeno guztien esentzia
- 4) desarroiloa espiralean ematen da

Engelsen legeekin alderatuz, bi printzipio "berri" agertzen dira hemen: elkardependentzia eta desarroiloa espiralean. Engelsen lehenena eta bigarrena (kantitatea-kualitatea eta kontrarioen elkare-ragina) lege bakar batean bilduak ikusten ditugu orain (kontradikzioa da fenomenoaren barnemuina). Negazioaren negazioa birformulatua dator: etengabeko prozesua jartzen da haren ordean.

Lau printzipio hauek pauso haundi bat dira Engelsenekin konparatzen baditugu. Dialektika marxistaren desarroiloaldi berri batean aurkitzen gara: Engelsen formulazioak zuzendu, ukatu, gainditu egingen ditu Leninek. "Dialektika, laburkiro, kontrarioen batasunaren teoria da", dio hura definitzerakoan. Dialektika, lehen aldiz, "bitan zatitzen da" formulaz definitzen da. ("Dialektikari buruzko Arazoak"). Dialektikari ematen zaio lehentasuna eta ez materialismoari ("Kuaderno filosofikoak"). Leninek, Engels zeharo superatuz, kontradikzioa jartzen du errealitate guztien bihotzean: "kontrarioen batasuna, dio, pasadizuko gauza da, transitorioa, errelatiboa, kontrarioen arteko burruka, berriz, absolutua da". Burruka da pentsaera dialektikoaren printzipio absolutua. Horregatik, dialektika iraultzailea da.

Stalin. Bai, Stalin!, inork ez baitu Stalin aipatu nahi kristonak esateko ez bada. Stalin marxismoaren "klasiko" bat da eta ezin dugu alde batera utzi.

Materialismo dialektikoaren desarroiloaz aritzerakoan, hiru etapa

haundi bereiz daitezke bertan: Stalinen aurretik, Stalinekin, Stalinen ondoren.

Stalinen aurretik, klasikoen etapa sakratua da; errespetu haundiz begiratzen zitzaien garaia. Stalinekin: marxismoaren etapa beltza da. "Traidore haundia", dialektikaren dogmatizatzailea, eta antzeko perlak esan dira Stalinengatik. Stalinen ondoren: liberazioaren etapa da. Azkenik, "materialismo dialektiko eta materialismo historiko" staliniarraren kate teorikoetatik askatu dira marxistak... Omen.

Nolanahi ere, Stalinen "mat. dialektiko eta mat. historiko" izeneko foiletoak (1938) etapa bat markatu zuen (1953 arte, 200 milioi ejenplar). Stalinen alde posizioa hartu gabe ere, hari egin zaizkion kritikak ahulegiak dira, Bermudo Avilak bere liburuan dioen bezala. Ikustagun:

1. foiletoa dialektika azalduz hasten da, eta ez materialismoa (Marx-Engels-Lenini buruz inobazio bat, beraz).
2. Engelsek formulatutako hiru legeetatik, Stalinek ez du hirugarrena jasotzen.
3. Stalinek lege berri bi sartzen ditu.
  - a) fenomenoaren lotura organikoa, elkar baldintzapena
  - b) fenomenoaren beraun mogimendua eta desarroiloa

Alde hontatik, Stalini aurpegiratzen zaizkion pekatuak bi hauexek dirateke:

- dialektika eta materialismoa bereizi izana
- materialismoari dialektika aurrejarri izana

Stalinen beste herejia bat "negazioaren negazioa" ahaztu izana omen da, eta honen orde, fenomeno mugimendua eta desarroiloaren legea sartu izana. Kritika honek ez du funtsik, ordea: Stalinen pasarte zenbait irakurtzea nahiko da, bi legeok gauza bera adierazi nahi dutela ohartzeko. Xelebrekeria ere bada: Stalinen errua, batzuentzat, "dialektiko" txarra izatea den bitartean, besteentzat dialektikari lehentasuna eman izana da. Kritiko hauek esatera, Stalinen heriotzaz eta "desestalinizazioaz" batera, dena aldatu da. Baina, Althusserek behin eta berriro esan duen bezala, Stalini "eskubiko" kritiko besterik ez zaio egin. Aurrera beharrean, atzera egin da, Hegelengana.

Stalinek kondizio zehatz batzuetan interbenitu zuen burruka filosofikoan: sozialismoa eraiki beharra zegoen, proletargoaren diktadurari eutsi beharra. "Sozialismorantz hanka batekin joan izana" kritikatzeko dio Maok Stalini. Ekonomian lehentasun guztia industria astunari emanez, Stalinek alor politiko eta ideologikoa gutxietsi zuela esan nahi zukeen Maok. "Sozialismorantz hanka batekin joateak" horixe esan nahi baitu: kontradikzioaren bi alderdietarik bat bakarria pribilijiatzea (industrializazioari lehentasun osoa). Eta honela kontradikzioa gainditu beharrean, antagonismoa sortzen da.

DIALEKTIKA: BAT BITAN ZATITZEN DA

"Dialektika hiru lege nagusitan biltzen zela ezaten zen iraganaldian, eta Stalinek lau lege nagusitan biltzen zela esan zuen. Nik oinharrizko lege bakar bat dagoela uste dut, kontradikzioaren legea. Kualitatea eta kantitatea, afirmazioa eta negazioa, fenomeno eta esentzia, kontenidua eta forma, beharra eta askatasuna, posibilitatea eta errealitatea, etab. kontrarioen batasuna dira denak" (Mao).

Maorekin dialektika marxistak elaborazio maila handi bat lortzen du. Dialektika, lehen aldiz, "kontradikzioaren teoria" gisa definiturik agertzen zaigu. Sakon eta zehatz aztertua. Maok, bere "Kontradikzioaz" izeneko saiakeran bereziki, aportazio berriak egin ditu dialektikaren arloan.

Liburu honen lehen frasea, hain zuzen, hau da: "gauzei berez da gokoena kontradikzioaren legea da (kontrarioen batasuna, halegia) dialektikaren lege fundamentalak". "Dialektika, bere esannahi xuxenean, gauzen esentzian bertan dagoen kontradikzioaren esentzia da".

Oinharrizko lege hau 5 tesi nagusitan agertzen du Maok:

- 1) errealitate oro prozesua da
- 2) prozesu oro, azken instantzian, kontradikzio multzo bat da



- 3) prozesu orotan beti dago kontradikzio nagusi bat
- 4) kontradikzio oro disimetrikoa da; alderdi bat du nagusi dena
- 5) tipo desberdineko kontradikzioak daude: antagonikoak eta ez antagonikoak.

Ikus ditzagun banan-banan:

1) Lehen tesia: errealitate oro prozesua da.-

Lehen begiradan, oso gauza ximplea ematen du honek. Testamentu zaharreko "eguzkipean ezer berririk ez" delakoaren kontra, Herakli tok "dena aldatuz doa" esan ohi zuen. Honekin zera adierazi nahi zuen, halebria, gauzen barne izaera, beren esentzia, aldakorra dela, ekilibrioa ez dela inoiz ere gauzen legea izan. Metafisikak, berriz, identitatearen teoria defenditzen du: "gauzak ondo daude, dauden bezala; ez dago ezer aldatu beharrik". Klase posizio kontserbadore bat adierazten du horrek. Horregatik esan ohi zuen Marxek, "dialektika klase zapaltzaileentzat eskandaloa eta abominazioa dela".

Inguratzen gaituzten gauza guztiak aldatuz doazela esplikatzeko oso ejenplu ximpleak, erraxak jartzen ditu Maok: arraultzarena, adibidez. Lehen begiratuan, arraultza egonean dagoen gauza bat ematen du, baina sakonago begiraturik, arraultzak prozesu bat duela kon turatuko gara: arraultza hori lehen oiloa zen eta gero, kondizio jakin batzuetan, txita bilakatuko. Gure gizartean, berdin; gizarte kapitalista hau gizarte feudaletik sortua da, eta egunen batean, sozialista bihurtuko ...

Beraz, lehen tesi honek horixe esan nahi du: aldaketan ai ez denik ez dela ezer. Berriak zaharra jaten duela; hauxe da etengabe-ko prozesuaren legea. Mugimentua gauza guztietan ari da, naturalezan nahiz gizartean. Jakina, errealitateko nibel desberdinetan ematen diren kontradikzioak (fisikoak, biologikoak, sozialak,..) zer-nola bereizten diren zehaztu beharra dago; badauka hor zereginik materialismo dialektikoak.

2) Bigarren tesia: prozesu oro, azken instantzian, kontradikzio multzo bat da.

Gauza guztiak aldatzen ari, mugimentuan daudela esan dugu. Mugimentu honen iturburua, gauza bakoitzaren barnean aurkitzen diren eta burrukan ari diren kontrarioetan dago. Elkar burrukatzen duten hurkakorik gabe ez legoke mugimenturik. Eta, hain zuzen, elkarren kontrario diren indar horiek osatzen dute kontradikzioa. Gauza bakoitzaren barnean gertatzen den berezko zerbait da kontradikzioa. Kontradikzioa, kontrarioen arteko burruka, mugimendua da. Adibidez, ez daiteke gizarte kapitalistarik kontzebitu, elkarren kontra burrukan ari diren bi kontrario hauek gabe: burgesia eta proletargoa.

Gauza guztiak dira kontradiktorioak, hortaz; kontrarioen eraginpean daude fenomeno guztiak. Baina mugimendu horren formak, gauza bakoitzaren izaeraren arabera bereizten dira. Eta horregatik dira kontradikzioak ere desberdinak. Adibidez, pelotajokuan ari direnen arteko kontradikzioa eta langile eta nagusien artekoa oso desber-

dinak dira, filosofien arteko eztabaidak eta bi harmaden arteko burrukak desberdinak diren bezalaxe.

Kontradikzioak, beraz, burruka adierazten du, elkarren kontra ari diren bi alderdiren arteko burruka. Gauzak "zatitu" egiten dira: "bai bitan zatitzen da". Egokiago litzateke, beraz, kontrarioen batasunaz baino "batasunaren zatiketaz" mintzatzea. Errealitatea ez da prozesua soilik, prozesua zatiketa da. Txinan eztabaida haundi bat izan zen "bat bitan zatitzen dela" eta, erreboluzio kulturala baino lehenxeago. Yang Sien txen izeneko bat "bi baten fusionatzen direla" esaten hasi zenean. Identitateari kontradikzioari baino inportantzia haundiagoa ematea zen: kontrarioen artean puntu komun batzuk aurkituz, batasunari lehentasuna ematea. Ejenplu bat: "bat bitan zatitzen da" printzipioaren arabera, ez dago ezer komunik burgesiaren eta proletargoaren artean, klase burruka baizik; "bi batean fusionatzen direlako" printzipioaren arabera, berriz, balegoke puntu komunik burgesiaren eta proletargoaren artean, elkar koexistitu datezke, halegia.

Zatiketa hau komunisten artean ere eman daiteke: mugimentu komunista internazionala batasun bat da, baina batasun zatitua: Txina alde batetik eta URSS bestetik, marxista-leninistak batetik, errebisionistak bestetik. Kontradikzio hau, kontradikzio guztiak bezalaxe, ez da errekonziliazio bidez erabakiko.

Labur: gizartean kontradikzio anitz da. Galdera hau egin behar du-

gu, orduan: zenbat kontradikzio ikusten dugu Euskal Herrian?

3) Hirugarren tesia; prozesu orotan beti dago kontradikzio nagusi bat.-

Bere barnean kontradikziorik ez duen gauzarik ez dela, esan dugu. Kontradikzioak, ordea, izaera desberdinekoak dira. Naturalezan, pentsamentuan, gizartean ... kontradikzio desberdinak.

Prozesu guztietan, kontradikzio asko daude eta horietarik bat da derrigorrean nagusia. Marxismoarentzat, gizarte kapitalistan burgesiak eta proletargoak osatzen dute kontradikzio nagusia; eta horik aparte, kontradikzio sekundario pila, hala nola proletargoaren eta nekazalgoaren artekoa, burgesia monopolistaren eta ez monopolistaren artekoa, etab.

Har dezagun, adibidez, huelga bat: kontradikzio ugari aurkituko ditugu bertan, patroiararen eta langileen artekoa (nagusia), langile huelgista eta ez huelgisten artekoa, huelgista iraultzaileen eta sindikalisten artekoa ... (sekundarioak). Hau, normalean, honela bada ere, gerta daiteke, momentu batean, kontradikzio nagusia kontradikzio sekundario bihurtzea, eta alderantziz. Huelga hortan, adibidez, sindikalista bertikalen (edo "zentralisten") eta langile iraultzaileen arteko kontradikzioa nagusi bihur daiteke: momentu batean bi bide horien arteko burrukak inportantzia handiagoa har baitezake patroiararen eta langileen arteko kontradikzioak baino; burruka, erabat erreibindikatioa eta ekonomikoa izatetik po-


litikoa izatera pasatu delako; momentu hortan, langile burrukarako era berri batzuk sortzeak interes handiagoa dualeko...

Horixe da kontutan hartu beharrekoa: kontradikzio nagusia ez dugu metafisikoki hartu behar; kontradikzio guztiak elkar dependentsian daude eta, beraz, lekuz alda daitezke, nagusia sekundario, eta alderantziz.

Noski, ez da batere gauza erraxa, egoera edo fase bakoitzean kontradikzio nagusia zein den aurkitzea. Eta, hain zuzen, horri lotua dago guztia: teoria eta politika. Honetantxe agertu du Maok bere jenio handia: egoera eta momentu bakoitzari zegokion kontradikzio nagusia harrapatzean. Gonparazio baterako, Japonen kontrako gerran inperialismoa/masa popularrak jo zuen kontradikzio nagusitzat; horrelako egoera batean, "frente batu bat" eratu beharra zegoen, burgesia nazionalarekin batera, noski. Gero, japondarrak menperatu on doan, kontradikzio nagusia lekuz aldatu zen...

Askotan, kontradikzio nagusia detektatzerakoan huts egin da, adibidez, euskal kasuan bezala, problema "sozialari" problema nazionala gehitzen zaionean. PC eta PSOE gerra aurretik, eta gaur egunean ere, "sozial arazoarekin" itsutuak ibili dira eta dabilta. Berau ote da, ordea, kontradikzio nagusia bakarra? Ala ... ez ote da beste era batera problema ezarri behar? Hamaika eztabaida bada honetan ....

4) Laugarren tesia: kontradikzio oro disimetrikoa da: alderdi bat du nagusi dena.-



Kontradikzio guztietan problema birekin aurkitzen gara; prozesu batean kontradikzioari zer eginkizun dagokion aztertu behar da lehenengo. Prozesu horretan duen papera edo egitekoa dominantea bada, kontradikzio horixe da kontradikzio nagusia. Eta bestela, kontradikzio sekundarioa izango da, menpekoa, bigarren mailakoa. Hontaz esan dugu zerbait aurreko tesian.

Bigarren problema, kontradikzioaren bi alderdietako bakoitzaren egitekoa aztertzea da. Bi alderdi horiek beren artean daramaten burrukan, zein den nagusi eta zein sekundario. Maok dioen bezala, kontradikzio bakoitzak ditu bere "alderdi nagusia" eta bere "alderdi sekundarioa".

Futbol partidu bat hartuko dugu adibidetzat. Eman dezagun, A ekipoak bi gol sartu dituela eta B ekipoak bakarra sartu duela. A rki poak irabazten dihoala eta B ekipoa galtzen ari dela esan ohi dugu. Hori bera, dialektikaren hitzak erabiliaz adieraziko bagenu, ekipo bi horien arteko kontradikzioan, A ekipoa dela alderdi nagusia esango genduke eta B alderdi sekundarioa. Gonparazio baterako, he-

rri kapitalista huts-huts batean, burgesia/proletargoa da kontradikzio nagusia eta kontradikzio nagusi hortan burgesia da alderdi nagusia, bera baita klase dominantea, bera baitabil partidua irabazten, eta proletargoa, berriz, menpekoa, zapaldua dago eta.

Baina dialektikaren berezitasuna beste honetan dago: halegia, alderdi nagusia sekundario bihur daitekela, eta aldrebes.

Har ditzagun hiru kontradikzio:

indar produktiboak/produkzio erlazioak

praktika/teoria

oinharri ekonomikoa/superrestruktura

generalean, indar produktiboek, praktikak eta oinarri ekonomikoak paper nagusia jokatu ohi dute: alderdi nagusi dira. Baina, kondizio jakin batzutan, produkzio erlazioek, teoriak eta superrestrukturak paper nagusia joka dezakete, alderdi nagusi bilaka daitezke, alegia. Burgesia/proletargoa kontradikzioan proletargoa bihur daiteke alderdi nagusi, egunen batetan agintea eskuratzen badu. URSSen, esate baterako, alderdi aldaketa bat gertatu dela uste du Maok, kontra-iraultza nagusitu dela.

Fenomeno baten desarroiloa konprenitzeko, beraz, prozesu hori determinatzen duen kontradikzio nagusia aurkitu behar dugu, eta kontradikzio honen barruan, zeintzuk diren elkareraginka ari diren alderdiak, zer eratako burruka daramaten eta zer egiteko betetzen duten burruka hortan kontradikzioaren alderdietako bakoitzak ...

Kontradikzioaren teoria hau ondo ikasi gabe ez dago politika egiterik eta gutxiago irabazterik. Burruka batean, irabazle atera na hi badugu, aurrean daukagun "etsairik handiena" menperatzen egin beharko ditugu indar guztiak. Etsai nagusi hori zein den, egoeraren azterketa zehatz batek erakutsiko dugu; eta horren arabera, eratuko dugu gure estrategia. Eta aldi berean, burruka horretan parte hartzen duten indarrak zeintzuk eta nolakoak diren aztertuko dugu, eta horrela gure taktikak erabakiko.

Hona Maok zer dioen: "Kontradikzioek ohi dituzten desberdin izateko era bereziak ikastea, kontradikzioetan nagusi zein den eta zeintzuk ez diren, eta kontradikzioaren alderdi nagusia eta sekundarioek zeintzuk diren ikastea da partidu iraultzaile batek daukan metodorik garrantzitsuenetako bat, bere estrategia eta taktika erabaki ahal izateko, nahiz politikako eginkizunetan nahiz gerrako lanetan. Komunista guztiek hartu behar dute gogoan metodo hau".

5) Bosgarren tesia: Tipo desberdinetako kontradikzioak daude: antagonikoak eta ez antagonikoak.-

Bereizketa hau fundamentala da. Nekazarien eta langileen arteko kontradikzioa, adibidez, ez da antagonikoa, baina bai burgesiaren eta masa popularren artekoa.

Hemen ere inportantea zera da: antagonikoak ez antagoniko bilaka daitezkeela, eta aldrebes.

(Maori buruzko zati hau eskema bat besterik ez da, UEUan zehatzago aztertzekoa).